



IGERIKETALDIA ESKOLAN



Ikasleak gainditzen dituen mailak "itsaszaldi" koloredunaren bidez irudikatzen dira.

Maila-aldaketa beheko mailari dagozkion froga guztiaz gainditzea beharrezkoa da; hala ere, asko hobetu duen ikasle batek maila-aldaketarik ezizatea gerta daiteke. Helburua ez da ikaslea kalifikatzea, ikasprozesuaren garapena berri ematea baizik.

ITSASZALDI TXURIA

Normalki kanpaina honetara etorri, uretan sartu eta ariketa errazak egiten ditu.

ITSASZALDI HORIA

Zutik botatzen da uretara. crol estiloko zango-zafra 20 m. (tablarekin) igeri egiten du. Metro gutxi batzuk ibiltzen da ur gainean eta ur barruan ongi botatzen du arnasa.

ITSASZALDI BERDEA

Crol eta bizkar estiloko zango zafra ongi egiten du (tablarik gabe). Arnasketaz jabetzen da. Nahiko ongi menperatzen du ura.

ITSASZALDI URDINA

Jauzi egiten du buruz behera. Igeri egiten du eta arnasa botatzen du batera. 25 m. igeri egiten du crol ala bular estilotan.

ITSASZALDI GORRIA

Igeri demetako lau estiloetatik, hiru menperatzen ditu. Baldintza onak ditu igeri egiteko.

ITSASZALDI BELTZA

Igeri demetako lau estiloak menperatzen ditu. Ura erabat menperatzen du. Oso baldintza egokiak ditu igeriketan edo waterpolotan aritzeko.